



Garazi Goia - @GaraziGoia
Idazlea

Etxetik urrun, txikien hitza

Aniztasunak eta inklusioak enpresa baten lidergoan eta emaitzetan duen eragin positiboaren ebidentzia gero garbiagoa eta eztabaida ezina da. McKinsey aholkularitza etxeak argitaratutako txosten batean bildu dituzten emaitzak irakurri berri ditut; hamabost lurraldetan milatik gora enpresatan egindako ikerketa biltzen zuen.

Zuzendaritza taldeetan genero aniztasunak errentagarritasuna handitzen duela frogatu da behin eta berri. Generoaz gain etnia ezberdinak kontuan hartzean, oraindik emaitza positiboagoak lortzen dira.

Aniztasuna eta inklusioa nire lan-tegiko balioetan guztiz errotuta daude. Helburu garbiak ditugu generoa, arraza, sexu orientazioa eta desgaitasun arloetan. Generoan, berdintasuna (50/50) dugu helburu hierarkiako maila guztietan. Etniari dagokionez, BAME (beltzak, asiarrak eta etnia gutxiak) %36ko ordezkartza izatea dugu helburu 2025. urtea baino lehen. Londresko kultura anitzeko testuinguru kosmopolitan ere anbizio handiko helburuak dira.

Kuotak eta helburuak ditugu, baina hori baino garrantzitsuagoa dena, elkarriketa eta daukan garrantzia normalizatuta daude egunerokotasunean. Esperientzia pertsonalak partekatzen dituzten boluntarioen hitzaldietan parte hartzea sustatzen da; gaien inguruko ezagutza maila berdinetara bultzatzeko formazio saioak ditugu eskuragai; jende berria kontratatzerakoan agentzia espezializatuak erabiltzen ditugu, inklusibitatea bermatzeko. Kulturen eta harremanetan benetakoa dela intentzioa sentitzen dugu.

Aurreko astean, aniztasunaren as-
tea ospatu zuten nire alabaren esko-
lan eta han izan nintzen hizkuntza
eta kultura gutxituei buruz hitz egi-
ten. Nire aurretik, Irango jatorriko
emakume bat, juduen genozidiotik
ihesi etorritako baten alaba eta gre-
ziar bat izan ziren. Euskal Herriari
buruzko lezio azkar batekin testuin-
gurua kokatu eta kulturak jasan be-
har izan duen zapalkuntzaz aritu
nintzaie, euskaraz hitz batzuk era-
kutsi nizkien eta atzerrian bizita
euskararekin lotura nola mantene-
tzen dudan kontatu nien.

**«Baina, nola da hori posible, demo-
krazia batean bizi garenean?» gal-
derak ireki zuen galdera eta eran-
tzunen tarteak, sei urteko mutil
baten ahotik hori entzuteak sor-
tzen zuen harridurarekin. Hizkuntza**

murrituak zergatik diren garrantzi-
tsuak galdetu nienean, «bestela de-
nok ingelesez bakarrik hitz egingo
genukeelako eta mundua leku asper-
garriagoa izango litzatekeelako»,
esan zidan beste batek. «Jende ezber-
dinen pentsatzeko eta komunikatze-
ko modu ezberdinak interesgarriago
egiten dute gure komunitatea», esan
zuen hirugarren batek. Sei eta zazpi
urteko haurrak ziren. Nire herritik
hain urrun erantzun horiek entzute-
ak ilusioa piztu zidan; nire herrian
bertan edo herritik gertuago askotan
dagoen ignorantzia eta atzerakoita-
sunari itzala eginez.

**Aniztasunaren ñabardura ezberdi-
nak gaztetatik** presente dauzkaten
belaunaldietan ikusten dira dagoe-
neko enpresa munduan aipatzen ni-
tuen abantailak. •



Aniztasunaren ñabardurak presenteago daude belaunaldi gazteetan.

Jagoba MANTEROLA | FOKU